

Francisque Michel eta euskal literaturaren historia

Jean Casenave

► **To cite this version:**

Jean Casenave. Francisque Michel eta euskal literaturaren historia. Argitaratzaileak: R. Etxepare, R. Gomez, J. Lakarra. Beñat Oihartzabali Gorazarre, Anuario del Seminario de Filologia vasca ” Julio de Urquijo ”, pp.173-179, 2009. <artxibo-00624476>

HAL Id: artxibo-00624476

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00624476>

Submitted on 18 Sep 2011

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

FRANCISQUE MICHEL ETA EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

In Beñat Oihartzabali Gorazarre

Argitaratzaileak : R. Etxepare, R. Gomez, J. Lakarra
Anuario del Seminario de Filología vasca « Julio de
Urquijo », 2009.

Francisque Michel-ek *Le Pays basque* argitaratu zuen 1857-an. Liburu gotor hartan, euskal literaturaren aurkezpen luze eta sakona egiten du. Orduz geroz egin diren « Euskal literaturaren historietan » beti aipatua da liburu hura bainan, gauza guti erraten da hartan aurkitzen den edukiaz eta gutiago oraindik Francisque Michel-ek erabili duen metodologiaz. Bi puntu horiek aztertuko ditugu ondoko lerroetan.

1. Liburuaren edukia :

Euskal Herriari buruz, frantsesez egin den lehen monografia sakona da, Francisque Michel-en *Le Pays basque*. Azpтитuluaren arabera, erran daiteke aurkezpen orokorra dela eta, besteak beste, ondoko gaiak aipatzen ditu : jendea, hizkuntza, bizimoldeak, literatura eta musika. Edukia zehazkiago aipatu nahi bada, ondoko kapitulu izenburuak altxa daitezke aurkibidean :

- I. Le Pays basque.
- II. L'escuara ou la langue basque.
- III. Les proverbes basques.
- IV. Représentations dramatiques chez les Basques.
- V. Les amusements du peuple basque.
- VI. Les contrebandiers basques.
- VIII. Superstitions du Pays Basque :
- XI. Pêches et découvertes des Basques dans les mers du Nord ; émigrations de ce peuple dans l'Amérique du Sud.
- X. Mœurs, usages, costumes des Basques.
- XI. Poésies populaires des Basques.
- XII. Musique basque.
- XIII. Bernard d'Echepare.
- XIV. Arnauld Oihenart.
- XV. Pierre d'Axular.
- XVI. Bibliographie basque.

XVII. Conclusion.

Aurkibideak argiki erakusten du Francisque Michel-ek ez duela bereizten sorkuntza literarioa bere kontestutik. Azalpen historiko batekin abiatzen da, euskal jendearen aurkezteko eta xehetasun geografikoak eta soziologikoak (jende kopuruak eskualdeka, etb.) ematen ditu. Euskarari buruzko oharrekin jarraitzen du bere aurkezpena, garai hartan bil zitezkeen xehetasun fidagarrienak emanez. Sorkuntzaren ulertzeko behar diren beste ohar anitz ematen ditu ere, hala nola bizi eta pentsa moldeak baita ere dibertitzeko ohidurak. XIX-garren mendeko poesian erabiliak diren zenbait gai –emigrazioa adibidez– gainez gain aipatzen ditu, berak hautatu dituen bertsoetan landuak baitira hain zuzen (ad : « Chants de Montevideo »).

Ohar frango beraz, gaur egun ethnologian eta anthropologia sailetan ager daitezkeenak : buhameak edo agoteak, sinesteak eta sorginen gaia, tradizioak, etb. Horien artean, zenbait urte berantago -XIX-garren mende ondarrean- kanpoko idazleek eta margolariek erabili dituzten errepresentasio eta irudietan aurkitzen dira, pilota eta kontrabanda (ad. *Ramuntcho* 1897) besteak beste baita ere zezen lasterrak, « euskal topikoetatik » garai berean baztertua izan den nortasun ezaugarri bat. XX-garren mendeko bigarren partean « Historia kulturala » deitua den sailan nasaiki sartzen da beraz, Francisque Michel, bere helburu nagusiaren betetzeko, Euskaldunen sorkuntza literarioaren aipatzeko hain zuzen.

2. Literaturaren aurkezpena :

Gai zerrendatik beretik, garbi uzten Francisque Michel-ek literaturaren sailak oro aurkeztu nahi dituela : herri literaturan garatu direnak, hots ahozko literaturan sailkatzen direnak : kantuak, antzerki mota popularrak (asto lasterrak, pastoralak, tobera-mustrak), atsotitzak. Bestalde, idatziari lotuak direnak erran nahi baita, liburuaren kulturen sartzen direnak.

Atsotitzekin abiatzen du Euskaldunen literaturari buruzko aurkezpena. Gai hortaz kapitulu berezi bat osatzen du, Garibay¹, Oihenart² eta Voltaire-n³ bildumetan oinarrituz nagusiki eta horietatik adibide asko aukeratuz.

¹E. Garibay, *Memorias* liburutik jalgiak diren atsotitzak. Francisque Michel-ek publikatu zituen Oihenart-i buruz egin zuen liburuaren emendakin bezala.

² A. Oihenart, *Proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart suivis de poésies basques du même auteur*, 1657. Francisque Michel-ek liburuaren berrargitalpen bat egin zuen 1847-an.

³ Voltaire, *Tresora hirour lengoiaetaqua francesa, espagnola eta hasquara*, 1642.

Laugarren kapituluan (« Représentations dramatiques chez les Basques »), herri antzerki motak xeheki aurkezten ditu, maskarada edo tobera-munstren bezalako ikusgarrien antolatzeke moldeak erakutsiz et beste Europako eskualdetan aurkitzen diren iduri handiko antzezlanak konparagaitzat hartuz.

Pastoralak xehekiago aipatzen ditu, aurkezpen historiko bat eginez eta generoaren egokitzeko beren kulturari Euskaldunek egin dituzten aldaketak erakutsiz. Xehetasunak ematen ditu antzerkien edukiaz, argumentoa kondatuz, ondoko lau obrentzat : *Clovis*, *Marie de Navarre*, *Napoléon empereur* eta *Les Quatre fils d'Aimon*⁴.

XVI eta XVII-garren mendetako hiru autore nagusiek (Dechepare, Oihenart eta Axular) badute bedera monografia bat eta bakoitzarentzat, obraren aurkezpena eskaintzen du Francisque Michelek.

Ondotik « euskal bibliografia » deitzen duen kapituluan, euskaraz idatzi duten idazleen obren erreferentziak biltzen ditu. Ordurako bil zitezkeen datuen parte handiena ezarriak dira kronologiaren arabera : erligioaz ari direnak eta besteak. Azken sail hontan, alegiak aipatzen ditu (Archu, J.A. eta B. Mogel, Goyhetche) baita ere gizarte gaien tematikan (anthropologian, ethnologian) sartzen diren obra bakar batzu (ad. Iztueta-ren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira*).

3. Kantu bilduma :

Bainan, kantuen kapitulua da, dudarik gabe, osatuena. Berrehun orrialde baino gehiago baditu eta 1994-ko berrargitalpenean P. Lafittek dionez, badirudi liburu oso baten gaia bazela parte hortan. Hogei orrialdetako sartze historiko baten ondotik, kantuak ematen ditu. Horrela sailkatzen ditu : « Chants historiques ; Chansons politiques ; Légendes poétiques, Chants funèbres ; Romances ; Chants de Montevideo ; Mes Méditations ; Chansons morales ; Satires ; Chansons diverses ».

Bilketa horrek alde guziz onak baditu. Lehen aldia da horrelako bilduma nasaia argitaratzen dela. Garai berean, A. Xahok kantu horietarik anitz agerrarazi zituen Ariel aldizkarian eta *Biarritz et ses alentours*⁵ deitu liburuan. Eta Francisque Michel kantu horietarik frango hartu zituen bere liburuan sartzeko. Bainan, kopuruaren aldetik baita ere argitalpenaren zehaztasunari begira, ez da dudarik premia handiagokoa dela Francisque Michel-ena Xaho-rena baino.

⁴ Autoreak ezarri dituen bezala emanak dira hemen, nahasketa handi batean kronologiaren aldetik.

⁵ *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan*, (1850) delakoan, korpus mugatu bat baizik ez du argitaratu Xaho-k. Bere kantutegia esku-izkribu bezala gelditu zen eta XX-garren mende ondarrean publikatua izan da P. Urkizu-ren eskutik : *Agusti Chahoren kantutegia*, Ed. Susa, 2006.

« Poésies populaires des Basques » kapitulu hortan badugu korpus zabal bat, XIX-garren mendean eta ondokoan ere oinarri bezala agertu dena. Francisque Michel-i esker « multzo koherente » bat bezala agertu zen lehen aldirako euskal kantu bilketa hori, beste eremu kulturaletan egin zirenen hein berekoa : Grezian, Alemanian, Frantzian, Lituanian, etb.

Halarik ere, gaurko irakurle eta ikerle batentzat, arazo zenbeit sortzen ditu Francisque Michel-en bildumak. Lehenik, ikusi behar da bigarren eskuko lana dela : bilketa beste batzueganik hartua du autoreak. Hain zuzen, azpimarratu behar da berak zehazki emaiten dituela oin-oharretan erabili dituen iturriak. Gauza bera erran daiteke itzulpenarentzat, nahiz berak hein batean landua zuen euskara, besteen lanetik ari da. Eta ez da batere garbi hautaketa zenbatetaraino berea den.

Iturrien problemarekin segitzeko aise konturatzen gara informatzaileak. ez direla denak kalitate berekoak. Horietarik zenbait faltsukerian arizan dira hala nola Garay de Monclave⁶, *Altabiscarko kantuaren* adibide famatua lekuko. Halarik ere, orduko euskalzale ezagutuak hartu ditu informatzaile eta laguntzaile bezala, ondoko punduan ikusiko dugun bezala.

Kantuen parte hortan aurkitzen dugun arazo handiena sailkatzeko moldetik heldu zaigu, eta hori bi maila ezberdinetan. Nahasketa handia bada erabiltzen ditu sailen aldetik : “Légendes poétiques”, “Chansons morales”, “Romances” edo “Satires” sailak guziz onargarriak dira, beste eremu kulturaletan erabiltzen baitira eta ongi aztertzen eta justifikatzen baititu bilduman egileak berak. Aldiz, ez da gauza bera erraten ahal “Chants de Montevideo” edo « Mes Méditations » sailentzat, besteak beste. Lehenean, 1853-an Urruñan ospatu ziren Euskal Pestetan⁷ aurkeztu ziren obra zerrenda murriz baten gainean oinarritzen da kantu tradizio baten osatzeko, gainera funtsezko batzu batzertzen dituelarik (J.M. Hiribarren⁸). Gisa berean, “Ene goguetac” (Mes méditations) Camoussarry-ren olerki bakarrarekin -aukera argitu gabe- sail bat idekitzen du, hortan berean uzten duena.

Genero edo sailen arazoaz gain edo hobe erranez, hari osoki lotua, kronologiaren aldetik dagoen nahasketak ere traba nagusi batzuk erkartzen ditu gaurko irakurlearentzat : “Chants historiques” deitu sailean, adibidez, “Beotibarreko gudua” Erdi aroko gertakari

⁶ Garay de Monclave-n argitalpena 1834-ekoa da. Bere liburuan (234-235 or.) Francisque Michele-k bere dudak azaltzen ditu dokumentuari buruz, arrazoin tekniko batzueganatik bainan ez du kantuaren aspaldikotasunaz dudatzen.

⁷ “Euskal Pestak”, Antoine d’Abbadie-k antolatuak.

⁸ J.M. Hiribarren, *Montebideoco berriak*, 1853.

bat kondatzen duena ezarria da XVIII-garren mendeko “Belzunce bizcondea”-ren ondoan “Nacioenaco besta” Frantses iraultzaren denborakoa.

Erreferentzien sistema :

Guretzat doi bat ez ohizkoa izanik ere, berehala ohar gaitzke egiazko ikerketa lana dela Francisque Michel-ek argitaratu duena. Ezaugarriak non nahi badira eta lehen lehenik ikusi behar da askotan oinarritzko testuak –euskarazkoak- ezartzen dituela liburuan eta, horietarik zenbaitzu, ineditoak⁹ direla. Atsotitz asko ematen ditu euskaraz itzulpenarekin baita ere, ezker eta eskuin bildu dituen kantuen testuak. Indar bera egiten du hiru idazle (« Bernard D’echepare », « Arnauld Oihenart », « Pierre d’Axular ») klasikoen idazlanak aztertzen dituelarik, olerki eta prosen zati luze batzu ezarriz. Euskarazko testuarekin batean, frantses itzulpena ematen du. Pastoralentzat ere, euskarazko zatiak artekatu daude egiten dituen laburpenetan.

Hizkuntzari buruzko oharrak ere aurki daitezke, adibidez, kantuan erabilia den euskalkia. Bestalde, adierazpen frango ezartzen ditu euskarazko prosodiaz edo metrikaz eta prosarentzat ere ohar frango egiten ditu. Konparazione, Axularren prosa aipatzen duelarik Sarako idazleak ezagutu zituen oztopoak komentatzen ditu ortografia, hiztegintza eta joskera sailetan besteak beste.

Askotan edo ahal duelarik, testuaren autorea zitatzen du, hala nola « Chants de Montevideo » sailetik hartutako adibidean : « La seconde pièce qui a pour auteur un certain Martin Eguiateguy... ». Francisque Michel-i esker dira lehen aldirako izen deitura batzuk agertzen : « Les vers qui suivent sont d’un jeune prêtre de Ciboure nommé Camoussary ». Bainan, askotan, kantuak argitaratzen ditu egilearen izenik gabe. Ezin bestekoa baldin bada eresi zaharren kasuan (*Urrutiko anderea*), doi bat harrigarria da Etxahun-Barkoxe-ren bertsoak erabiltzen dituelarik : “Oficio cerbaiten critica” (Subertorra - Oi, laborari gachoa...), “Arçañe negligentiac” (Belhaudico bortian) edo “Eihartxe ta Miñau”¹⁰, izenbururik gabe emaiten duena. Francisque Michel berak dio Archu-ren bildumatik hartu dituela kantu horiek eta harritzekoa da biltzaileak ez diola koblakariaren izenik eman. Gainera, “Bibliographie” deitzen den azken kapituluan, « Pierre Topet dit Etchaoun » bi aldiz aipatzen du inprimategi batean argitaratu dituen bertso-paper batzuentzat. Bainan, badirudu ez zuela loturarik egiteko molderik izan bildu zituen informazioen artean.

⁹ Ad. Jean-Baptiste Camoussary, « Ene goguetac ».

¹⁰ Ikus, *L’Oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, J. Haritschelhar, Ed. Euskaltzaindia, 1970.

Gisa berean, biltzailearen izena edo haren aurkitzeko ukan duen bitartekaria edo iturria, tokiko jendea izanki (Chaho, Duvoisin, etb.) zehazki ematen ditu. Gauza bera, kanpotik heldu diren bidaiari eta jakintsunen (Bladé, Boucher de Perthes, etb.) idazlanak erabiltzen dituenen. Sopresarik gabe, garai hartako euskalzale eta ikertzaile ezagunen deiturak agertzen zaizkigu : Archu, Antoine d'Abbadie, Belzunce, Chaho, Darrigol, Duvoisin, Harriet, Inchauspe, etb. Bainan, beste zenbeit badira ezezagun egiten zaizkigunak : Bordachar, Mauleko apez bat eta Laphitzondo, Donazaharreko gizon gazte bat, Bordeleko lizeoan ari zena. Bere aldetik, 1994-ean liburua berrargitaratu zuenean, P. Lafittek bi izen azpimarratzen ditu laguntzaile hurbilen artean : Duvoisin, eta Etcheverry, heletako errieta.

Adibide baten emateko, aipa dezagun *Marie de Navarre* pastoralaren kasua. Egilearen izenik ez da bainan, aipatzailearena ematen du baita ere haren ganik antzerkiaren edukiaz bildu dituen xehetasunak. J.P. Duvoisin-ek argitaratu zuen artikulu bat izan du iturri eta datu zehatzak ematen ditu, nota batean : « Album pyrénéen, mars 1841, p.90-102 ». Artetik errateko, erran dezagun garai hartako euskal argitalpenetan ez zela horrelakorik maiz ikusten. Agusti Chaho-ren liburuetan adibidez, ez dira idazterakoan biltzaileak erabili dituen iturriak beti aurkitzen.

Erreferentzien sail honekin bukatzeko, erran dezagun ere aurkezten dituen dokumentuen azterketa sakona egiten duela, haien sailkatzeko indar handi bat eginez. Har dezagun berriz pastoralei buruz proposatzen duen sailkapena. Bildu dituen hogeita-lau antzerki-lanak horrela banatu ditu : gai biblikoak (*Moïse, Abraham*, etb.); gai mitologikoak (*Bacchus, Alexandre*, etb.); gai historikoak (zaharrak : *Clovis, Charlemagne*, etb. ; modernoak : *Napoléon*, etb.).

Antzerki bakoitza aipatzen duelarik, orduko kritika literarioak erabiltzen zituen kriterioak erabiltzen ditu maisuki. Saio horren adibide gisa aipa dezagun generoen erabilera : idatziaren eremua bereizten du ahozko tradiziotik eta, idatziaren baitan, olerkaritza prosatik. Bestalde, aurkezten dituen obren azterketa lantzen du tradizio literarioaren arabera, kriterio garbi eta ezagunak baliatuz, adibidetzat eman dezakegularik pastoralentzat ikertzen dituen puntuak : gaia, egitura dramatikoa, pertsonaien bilakaera, etb. Alde hortarik, ikusi behar da Francisque Michel lehena izan dela horrelako hedapen handiko xedea erakutsi duena euskal literaturaren ikerketa mailan.

Azterketaz gain, konparaketak erabiltzen ditu erreferentzi gisa. Adibide ugari bada eta hortan ez luzatzeko, nabarienak baizik ez ditugu emanen. Antzerkientzat, Brentañan, Artois eta Roussillon eskualdetan, baita ere Alemaniako eta Austriako parte batzutan egiten diren

antzerki popularrak -Pastoralak edo asto lasterrak bezalakoak- aipatzen ditu. Pastoralentzat, Erdi aroko « Misterioek » eta “La Bibliothèque bleue” bildumak hedatu gaiak ukan zuten eragina zitaten du, besteak beste.

Kantuentzat, Grezia zaharreko Homero-rekin hasten da eta Latindarren (Birgilio, Horazio, etb.) poesiekin segitzen du. Erdi arotik iraganez geroz, XVIII-garen eta XIX-garren mendeetako kantu bilketeraino joaten da, Ossian-en¹¹ kantuak, Bretañako¹², Bohemiako edo Greziako¹³ kantuak erakartzen ditu konparagai bezala. Bere garaiko, biltzaile famatuenen izen deiturak atxematen ditugu *Le Pays basque* liburuan : C. Fauriel, J. Grimm, G. de Nerval, etb. .

Idazlan argitaratuentzat, jakitate ber bera aurkitzen dugu bai idazleen aldetik (Marie de France, Pétrarque, Marot, Cervantes, Shakspeare, François de Sales, Bossuet, etb.) baita ere argitaratzaileen aldetik (Euskal testuen argitaratzaileen erreferentziak¹⁴ xeheki emanak dira : urtea, edizioa, hiria, etb.).

Erran gabe doa, lehen aldia zela horrelako lan dokumentua agertzen zela euskal literaturari buruzko ikerketa batean. Oihenart-en mailako zehaztasuna aurkitzen dugu orrialde horietan eta garbi dago ofiziozko biltzaile baten egiteko moldea erakusten duela sail hortan Francisque Michel-ek.

5. Euskal literaturaren aurkezpenari buruzko zenbait ohar :

Plangintza orokorra ikusi eta, erraten ahal dugu autorea ez dela gure ikuspegi modernotik -literaturaren soziologiatik- oso urrun. Begien bistakoa da sorkuntza literarioa ez duela bere ingurumenetik bereizi nahi. Doi bat ahantzia baldin badugu ere, oroitu behar da XIX-garren mendeko literaturaren historiolariek, gizarte konkretu batzueri lotu nahi izan zutela sorkuntza literarioa : *De la littérature* (1800), G. de Staël, *Histoire littéraire de l'Italie* (1811), P. Ginguené, etb.

Francisque Michel, gizarte-gaien bitartez sartzen da euskal antzerkien tradizioan edo kantuenan, eta, kapitulu batean baino gehiagotan, XX-garren mendeko bigarren partean deitu izan den “historia kultural”-aren eremuan ari da.

Francisque Michel (1809-1887), Claude Fauriel (1772-1844) frantses filologo eta konparatistaren ikaslea izan zen J.J. Ampère (1800-1864) eta F. Ozanam (1813-1853) bezalako konparatistekin batean. Beraz, XIX-garren mendeko frantses eskola konparatistaren

¹¹ James Macpherson, *Fragments of Ancient Poetry collection in the Highlands of Scotland and translated from the Gaelic or Erse language*, 1760.

¹² Hersart de la Villemarqué, *Barzaz-Breiz*, Paris, 1839.

¹³ Claude Fauriel, *Chants populaires de la Grèce moderne*, Paris, 1824.

¹⁴ Ikus « Bibliographie » kapitulua.

garrantziko handiko partaidea zen. Euskal Herria ez da izan autore horren ikerketa eremu bakarra. Anitz erresumetan (Algerian, Ezkozia, Italian, etb.) ibili zen dokumentu biltzen eta ikerketa egiten. 1838-ean, Bordaleko Unibertsitatean izendatua izan zen Kanpoko literaturei buruzko klase baten emateko. Bordalen egon zen denboran, ikerketa sakonak argitaratu zituen landu zituen sail guzietan¹⁵ eta liburu hori argitaratu baino lehen, bi lan garrantzitsu egin zituen Euskal Herriari buruz, lehena, 1847-an Oihenart¹⁶-i buruz eta bigarrena Agoten¹⁷ gaiaz. Bi idazlan horientzat egin zituen ikerketak erabili ditu *Le Pays basque* horren ondoko hiru partetan : « Proverbes basques », « Les Bohémiens au Pays basque », « Arnault Oihenart ».

Beraz, ez da harritzeko *Le Pays basque* liburua guziz landua agertzen baldin bada erreferentzien aldetik baita ere metodologia zientifikoari begira. Francisque Michel-ek garbiki bereizten ditu bi sorkuntza eta adierazpen mota : oralitatearena eta idatziarena. Denbora berean, euskal kultura, bi parte ezberdinetan banatzen du : herrikoia / jantzia.

Bi bereizketa horiek, garai hartakoak ziren, dudarik gabe, bainan berehala gehitu behar da Ginguené edo Fauriel bezalako adituek ez zutela herriarena bestearen peko uzten. Haientzat, kultura bakoitzak bazituen bere ezaugarri historikoak, soziologikoak eta estetikoak eta, oro har, herriarena bestearen parrean, hura bezain gora, ezartzen zuten, Staël anderearen ildotik uste baitzuten Europako kulturaren erreberritzeko molde bat bazela sorkuntza hezigabe horren bitartez. Honekin bukatzeko, erran daiteke garaiko kriterio kritikoak erabili zituela Francisque Michelek, toki nasaia ematen ziolarik sorkuntza herrikoia. Beraz, ez da dudarik bere tokia bazuela *Le Pays basque* liburuak garaiko argitalpen nagusien artean.

¹⁵ Ikus, P. Lafitte, « Préface » in *Le Pays basque*, Francisque Michel, Ed. Elkar, 1994.

¹⁶ Oihenart (Arnault), *Proverbes basques suivis de poésies basques du même auteur*, 1657. Francisque Michel berrargitalpena, 1847.

¹⁷ Francisque Michel, *Histoire des races maudites de France et d'Espagne*, 1847.